

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LETREN FAKULTATEA



FACULTAD DE LETRAS

# GRADU AMAIERAKO LANA

---

## LIZUNKERIAREN IRUDIKAPENAK IBERIAR PENINTSULAKO ESKULTURA ERROMANIKOAN

---

MAITANE PECIÑA MUÑOZ

Tutorea: Juanjo Usabiaga

Ikasturtea: 2014/2015

Artearen Historiako Gradua

Artearen Historia eta Musika saila

## LABURPENA

Garai erromanikoak artearen ezaugarri formalen bateratasuna zabaldu zuen Europan. Erdi Aroko arte adierazpen guztiak, monasterio eta eliza kristauetan eman zirenez, erlijio kristauaren mezuak zabaltzeko helburuarekin sortu ziren.

Arte adierazpenak izan ziren Erdi Aroan ideiak helarazteko erabilitako baliabide baliagarriena. Biztanleria gehiena eskolagabetua zen eta Jainkoaren hitza irakurri ezin zuenez, modu bisualean berenganatzeko aukera ematen zitzaion baliabide hauen bidez. Gainera, elizen barnean meza eta sermoiekin batera mezu hau osatzen zen.

Erreforma Gregoriarraz geroztik bereziki, monasterioetako moralitatea modu zorrotzagoan inposatu zen, eta arte adierazpenetan antzeman zen aldaketa hau. Bertuteak momentu horretara arte zuten baino garrantzi gehiago hartu zuten. Erdi Aroan bertutea zen Jainkora hurbiltzeko modu bakarra, eta beraz bekatuetatik aldentzea izan behar zuen gizakion helburu nagusia.

Elizako autoritateek bekatuen irudikapena eta hauen ondoriozko zigorren irudikapenak erabili zituzten, bertuteen irudikapenak baino adierazgarriagoak zirelako, eta bereziki fidelengan inpaktu handiagoa sortzen zutelako.

Beraz, elizetako harburu, kapitel eta atariak bekatuen irudikapenez eta hauen ondoriozko arimaren zigorrez bete ziren. Hala ere, kontutan eduki behar da bekatu batzuk besteak baino gehiagotan irudikatu zirela. Hau da lizunkeriaren bekatuaren kasua.

Alde batetik, kastitatea erlijio kristauaren barnean garrantzi handia du, eta bestetik lizunkeria giza gorputzari eta jatorrizko bekatuari lotuta dago, eta beraz oso ohikoa da bekatu honetan erortzea, elizaren ikuspuntutik.

Eliza katolikoak *Hasieraren* liburuaren inguruan egindako interpretazioak emakumeari atxikitzen zion jatorrizko bekatuaren pisu guztia eta beraz, lizunkeriaren bekatua emakumezkoen bekatutzat hartzen da erlijio kristauan, eta gizonezkoa emakumearen probokazioarengatik baino ez da erortzen lizunkerian.

Lizunen irudikapen artistikoetan emakumezkoak irudikatzea izango da ohikoena, eta emakume lizunaren irudi hau, Ama Birjinaren irudiari kontrajarriko zaio.

Hiru ikonografia izango dira orokorrenak. Alde batetik “la femme aux serpents” eredua, non biluzik eta ile soltearekin agertzen zaigun emakumea, sugeek bere bularretan koska egiten dioten bitartean. Beste ikonografia oso zabaldua, organo sexualak erakusten dituzten bikote lizunena izango da, harburuetan agertuko den ikonografia. Emakumezko eta gizonezko hauek modu desatseginean irudikatzen ziren eta haien genitalak exageratzen ziren fidelek ongi antzeman zezaten. Azken ikonografia sirenarena da, gehienetan bi isatsekin irudikatua eta antzinarotik lizunkeriarekin lotzen dena.

Irudikapen hauetan Iberiar Penintsulako garai erromanikoan hainbat berezitasun aurkitzen ditugu, lurralde hauetan suertatutako egoera sozio-politikoarekin lotuta daudenak. Islamiar inbasioak kristautasuna eta erlijio islamiarraren arteko guda piztu zuen eta elizetako artea musulmanen aurkako propaganda egiteko erabili zen.

Eliza kristauaren nahia musulmanak bekatuekin erlazionatzea zen eta horregatik bekatarien irudikapenak musulmanekin lotzen ziren ezaugarriekin irudikatuta daude.

Emakume musulmana, lizunen artetik lizunena izatera heldu zen pentsamendu kristauan. Bekataria izateaz gain, infidela zen. Beraz, harburuetan agertzen diren emakume lizunen irudikapen hauetako batzuk, emakume musulmanen ezaugarria den buru estalia dute. Horrekin loturik, zenbait kapituletan sirena turbantedunak agertzen dira.

Beraz, artearen erabilera elizaren esku egonda, bere mesedetan erabili zuten eta Iberiar Penintsulako egoerara egokitu ziren arte eskultorikoko adierazpen hauek, ahaztu gabe moralitate bertutetsuaren aldeko mezua dela adierazpen hauen azpian zegoena.

# LIZUNKERIAREN IRUDIKAPENAK IBERiar PENINTSULAKO ESKULTURA ERROMANIKOAN.

---

## AURKIBIDEA.

|   |    |
|---|----|
| 1. SARRERA .....  | 4  |
| 2. ERROMANIKOA.....   | 6  |
| 3. BEKATU KAPITALAK .....   | 8  |
| 4. LIZUNKERIAREN BEKATU EDO BIZIOA .....  | 11 |
| 4.1. LIZUNKERIAREN BEKATUAREN IRUDIKAPENAK .....                                    | 16 |
| 4.2. IBERIAR PENINTSULAKO LIZUNKERIAREN<br>IRUDIKAPENAK, ISLAMAREN ERAGINPEAN ..... | 22 |
| 5. ONDORIOAK .....  | 28 |
| 6. BIBLIOGRAFIA .....   | 30 |

# LIZUNKERIAREN IRUDIKAPENA

## IBERIAR PENINTSULAKO

### ESKULTURA ERROMANIKOAN.

---

#### 1. SARRERA

Lan honetan, lizunkeriaren bekatuaren irudikapenak aztertuko ditugu, Erdi Aroan garrantzi berezi bat hartu zutelako mota honetako adierazpen artistikoak. Eskultura izan zen mende hauetan irudi hauetako euskarri nagusia, batez ere garai erromanikoan.

Erromaniko garaia indar bateratzaile bat ekarri zuen berarekin batera Europa mendebaldeko herrialdeetara. Batasun hau modu zuzenean zegoen erlijioarekin lotuta, eta Eliza Kristaueko autoritateak arte arloan ere estilo formal bateratu bat ezartzen ahalegindu ziren, haien asmoen mesederako. Asmo hauek hezitzaileak izan ziren batez ere, herriari Jainkoaren mezua ikasgaraztea zen haien helburua eta mezu horrekin bat zetorren moralitate berri bat eraiki zen. Bertutea bilakatuko da gizarte kristauaren helburu nagusia. Beauvaiseko Vicenteren *Speculum majus* (Ispilu nagusia) deituriko lanean, baloreen artean garrantzitsuena natura dela esaten da, bere atzetik zientzia eta gero bertutea etorriko zirelarik<sup>1</sup>. Hala ere, Erdi Aroan ikuspegi hau aldatuko da, Santiago Sebastian Lopez-ek dioenez, mende hauetan garatutako pentsamendu kristauan bertutea zientzia eta artearen aurretik kokatzen zen, bertutea gizakiaren helburu nagusia zelakoan. Bertutearen idei honek, horren kontra doazen bekatuen irudikapen hain ugaria azalduko du, Erromaniko garaian bereziki anitza izan zena<sup>2</sup>.

Bertuteen irudikapena baino, laster konturatu ziren bekatuen irudikapena eta horren ondoriozko zigortuaren irudiak askoz inpaktu handiagoa sortzen zutela fidelengan. Idei horrek XI. mendetik aurrera bekatarien eskulturak oso ugariak izatea eragin zuen. Hala ere, bekatu batzuk beste batzuk baino hedatuagoak suertatu ziren. Geroago sakonki azalduko dugun moduan, zekenkeria eta lizunkeria beste bekatuen irudikapenak baino

---

<sup>1</sup> *Speculum majus* Erdi Aroko entziklopedia garrantzitsua izan zen, Beauvaiseko Vicentek idatzia XII.mendean . Garaiko ezagutzak biltzen zituen eta hainbat aldiz aldaketak edo eguneratzeak jasan zituen Errenazimentu garairarte.

<sup>2</sup> SEBASTIAN, S., *Iconografía Medieval*, Donostia, ETOR, 1988, 285 orr.

askoz ugariagoak izango dira hain zuzen<sup>3</sup>. Hala ere, bi bekatu hauen artean lizunkeriarena izan da aberatsena ikonografikoki eta askoz erabilgarriagoa Elizaren asmoetarako gainerako irudikapenekin konparatuz.

Arrazoi hauengatik, lizunkeriaren irudikapenetan murgilduko gara lan honetan. Hauek aztertzeko, erromaniko garaiari hurbilketa bat egingo diogu lehenengo eta behin, mende hauetako berezitasunak ondo ulertuz, bekatuek edukitako garrantzi handiaz hausnartzeko.

Bekatu kapitalak definituko ditugu ondoren, haien jatorria aztertuz, lizunkeriaren bekatua bereziki urte haietan suposatu zuena sakonki ulertzeko helburuarekin eta bere inguruan garatutako ikonografiak deskribatuko ditugu, hainbat adibidez baliatuz.

Azkenik, Iberiar Penintsulako garai erromanikoan emandako berezitasunak aztertuko ditugu, izan ere, beste lurraldeek jasan ez zuten testuinguru bat eman zen penintsulan: herri musulmanen inbasioa. Horrek dudarik gabe elizaren interesen instrumentua zen eskulturaren eragina eduki zuen, eta arraroa badirudi ere, baita lizunkeriaren irudikapenetan<sup>4</sup>.

---

<sup>3</sup>MARTINEZ DE LAGOS, E., "La femme aux serpents' Evolución iconográfica de la representación iconográfica de la lujuria en el Occidente europeo medieval", *Clio & Crimen*, 7.zk (2010) 139 orr.

<sup>4</sup> MONTEIRA ARIAS, I., "La otra", en el imaginario cristiano plenomedieval: La mujer musulmana asociada a la lujuria en el arte románico", *Zeitschrift für geschlechterforschung und visuelle kultur*, 54.zk (2013), 30 orr.

## 2. ERROMANIKOA

Erromanikoa gertakizun oso garrantzitsua eta erabakigarria izan zen Europa mendebaldeko historian. Sortu zen momentutik, X.mendeko bigarren erdialdean gune goiztiarretan, garai hura arte bizi izan ez ziren eraginak sortu zituen. Monasterio eta eliza sare ikaragarri bat eraiki zen, gaur egungo Europa mendebaldeko lurraldeetan zehar zabaldu zena. Oso argia da Erromanikoaren sorrera eta Klunitar orden benediktinarraren arteko lotura. Izan ere, orden honetako monasterioak izan ziren estilo honen bultzatzaile eta eragile nagusiak eta ordenak benetako indarra eduki zuen Iberiar penintsulari dagokionez. Izan ere, Hispaniako erreinuek Kristautasuna indartzeko aukera ikusi zuten benediktinar monasterioetan garatzen zen artean, bertan gertatzen zen arazo garrantzitsu baten aurrean: herri musulmanen inbasioa eta beraz Islam-aren aurkako guda<sup>5</sup>. Geroago ikusiko dugun moduan baliabide oso erabilgarria izango da arte erromanikoa kasu berezi honetan.

Europako lurraldeak feudalismoan murgilduta zeuden, eta herri eskolagabetu eta ezikasi baten aurrean aurkitzen zen kristautasuna. Lehen aipatutako eliza eta monasterioetan elizako autoritateek aukeratutako irudiak txertatzen ziren, eta irudi hauek mezu jakin batzuk garaiko jendeari helarazteko oso ondo pentsatuak zeuden. Honek Europan lehen bizi izan ez zen homogeneitate bat suposatu zuen, hau da, erlijio baten eta honekin batera zetorren ideia batzuen menpeko “araudi” bat bete behar zuten irudiek, eta arau horiek oso antzekoak izan ziren lurralde guztietan.

Eskultura izan zen ideia hauen euskarria izateko aukeratua, eskulturetan islatzen baitzen elizak munduaren inguruan herriari erakutsi (eta askotan, inposatu) nahi zion irudikapena. Irudikapen hau noski, eliza katolikoaren hezkuntzarekin bat zetorren, bertuteak goraiatzaren zintu eta bekatuak deuseztatu, gizakion arimaren salbaziorako.

Irudi hauek ezikasiaz zen herriari mezua helarazteko erabiltzen ziren, “biblia pauperum” moduan<sup>6</sup>. Bibliako pasarteak irudikatzeaz gain, ohikoa zen bekatarien

---

<sup>5</sup> MONTEIRA ARIAS, I., “Las formas del pecado en la escultura románica. Una interpretación contextualizada en el Islam”, *Codex Aquilarensis*, 21.zk (2005), 52 orr.

<sup>6</sup> SEBASTIAN, S., *Mensaje Simbólico del Arte Medieval*, Madril, Ediciones Encuentro, 1994, 236 orr.

irudikapena agertzea kristautasunarekin bat doan moralitatea indartzeko helburuarekin. Horren ondoan noski, bekatu horren ondorioak agertzen ziren, askotan infernuko torturen errepresentazioak, Jainkoaren bidetik aldentzen zirenen zigor zirenak.

Gizaki bertutetsua zen elizak gorai patzen zuena, bertutea baitzen erredentzioa lortzeko aukera bakarra, eta bertuteen irudi asko irudikatu ziren tenplu eta monasterioetan. Hala ere, laster konturatu ziren, bereziki XI eta XIII. mendeen arteko eskulturari erreparatuz, bizio eta zigorren irudikapenek eragin handiagoa eta biziagoa sortzen zutela fidelengan bertuteen alegoriekin konparatuz.

Elizen kanpoaldean oso maiz agertzen diren muntstro, animalia fantastiko eta groteskoak bekatarien arimaren irudikapena dira, bekatuek gure arima deformatzen baitute, salbaziorako aukera alde batera utziz<sup>7</sup>.

---

<sup>7</sup> MONTEIRA ARIAS, I., "La otra", ..., *Op. cit.*, 28 orr.



### 3. BEKATU KAPITALAK

Bekatu hitza, “caput” izenetik dator, etimologikoki, “buru” esan nahi duena. Pasioek eta instintuek sortutako efektua da, kristautasunak dioenez. Jatorrizko bekatuak eragindako gaitz hauek, plazerra eta gaizkia desiratzeari eramaten gaituzten bideak markatzen dituzte.

Tradizio kristauari jarraituz, bekatua da gaiztakeri egiazko bakarra, Jainkoaren bidetik aldentzen gaituelako. Bekatu bat ez egiteko, ez da soilik bertutearen ukapen bat egon behar, gainera, gizakiok gure borondatez egindako ekintza maltzurra da. Bekatzeko gaitasuna, jatorrizko bekatutik daukagu, gizakion “alde txarra” piztu zuen gertakaria izan baitzen hura. Jainkoak beraz, ez zuen bekatua bere irudira sortu zuen gizakietan erantsi, gizakiek haien borondatez Jainkoaren esana ez zuten bete eta haien gorputzetan bekatzeko grina piztu zuten, haien ondorengo guztiak kondenatuz<sup>8</sup>.

Akinoko Santo Tomasek esan zuenez, bekatuak bi eragin sortzen ditu gizakiongan: alde batetik, Jainkoarekiko aldentzen gaitu eta bestetik, gure gorputzen ahultasunei hurbiltzen gaitu. Bekatuek Satanasen zerbitzura jartzen gaituzte eta eraginak ez dira soilik bekatariarengan nabariko, izan ere, bekatuek kosmosean eragiten dute, gainerako izakiak Jainkoaren bidetik aldentzeko tentatuz<sup>9</sup>.

Bekatuek gradu ezberdinak dauzkate, eta larrienean arimaren heriotza dakartzate. Kristautasunean zehar, hainbat Elizako Guraso saiatu ziren bekatu hauen klasifikazio bat egiten. Akinoko Santo Tomasek egin zuen orain arte onartuena den zerrenda, 7 bekatuz osatua, bekatu kapital moduan ezagutzen direnak. Santiago Sebastián Lopez-ek bekatu hauek deskribatzen ditu *Erdi Aroko Ikonografia* deituriko lanean<sup>10</sup>:

Alferkeria. Bekatu honek gure betebeharrak betetzeko ukapenean datza, gure erantzukizunak gauzatzearen orde, ezer egiten ez dugun bitartean. Biblian bi motatako alferkeri bereizten dira, bata gizaki bezalako erantzukizunak alde batera uzterakoan eta bestea Jainkoarekiko dauzkagun betebeharrak ukatzerakoan ematen dena. Azken honi

---

<sup>8</sup> CARRASCO MACHADO, M<sup>a</sup>.I./ RABADE OBRADO, M<sup>a</sup>.P.(koord.), *Pecar en la Edad Media*, Madril, Silex, 2008, 282 orr.

<sup>9</sup> SEBASTIAN, S., *Iconografía Medieval*, Donostia, ETOR, 1988, 269 orr.

<sup>10</sup> *Ibidem*, 270-303 orr.

alferkeri izpirituala deritzo, aurrekoa baino larriagoa da eta oso ohikoa monje eta fraideen artean.

Harrokeria. Bekatu honen izena latineko “superbia” hitzetik dator eta norberaren gehiegizko goraipamena esan nahi du. Umiltasunaren bertuteari kontrajartzen zaion bekatua da hau, San Bernardok bere *De gradibus humilitas* obran idatzi zuen modura<sup>11</sup>. Binomio hau askotan bien alegorien arteko borroka baten bidez irudikatzen da, baita pertsonai Biblikoen baliatuz, adibidez David eta Goliat-en borrokaren bidez.

Haserrea. Gaizkiak bizitzaren aurrean bere burua kontrolatzeko ahalmenean datza bekatu honen agerpena edo, honi kontrajartzen zaion bertutearen agerpena. Haserreak pasioak kontrolatzen ez ditugula adierazten digu, beraz sentimendu horiek maneiatzen jakinda, neurritasunaren bertutea edukiko dugu.

Sabelkeria. Edaria eta bereziki janariaren erabilera gehiegizkoak sortzen du bekatu hau. Biologikoki daukagun behar bat bekatu bilakatu daiteke erraz, lizunkeriarekin gertatzen den bezala adibidez.

Zekenkeria. Ondasun materialekiko gehiegizko nahia eta berekoitasuna bultzatzen du gainera bekatu honek. Morala ahazten da bekatu honen bidez, izan ere, San Pauloren esanetan, dirua da gaiztakeri guztien erroa (I Timeo 6,10).

Inbidia. Latinezko “Invidia” hitzetik dator eta begi gaiztoekin begiratzea esan nahi du. Bekatu honek guregan tristezia edo ezinegona sortzen du, besteen poza edo ongizatearen aurrean. Besteen ongizatea gure buruaren gaitz baten moduan antzemateari eramaten gaitu bekatu honek. Santo Tomasen esanetan, bekatu hau da Biblian lehenengoz agertu zena, deabruak Adan eta Ebari inbidia zielako tentatu baitzituen eta bekatu honen eraginez hil zuelako Kain-ek bere anaia Abel.

Lizunkeria. Plazer sexualaren bilaketa da, inolako helburu legitimorik ez daukana, eta askotan ezkontzatik kanpo ematen dena. Gizakiak badauka bekatu honi daraman sen natural bat, “El Libro del buen Amor” liburuan aipatzen den moduan.

Azken bekatu honen irudikapenak, bekatuaren artean ohikoenak izan ziren Eri Aroan nahiz eta hori kontraesan bat iruditu. Izan ere, hain lizunak eta desatseginak iruditzen zitzairen irudiz betetzen ziren esparru sakratuak. Izan ere, Erdi Aroko irudi guztiekin

---

<sup>11</sup> RUIZ MALDONADO, M., “La contraposición ‘Superbia-Humilitas’.El sepulcro de Doña Sancha y otras obras”, *Goya*, 146zk (1978), 75-81 orr.

gertatzen zen moduan, irudi hauek ere helburu hezitzaile bat zeukaten. Irudi hauen adibide da Santillana del Mar herriko Santa Juliana kolegiatan aurkitzen den erliebea (1.Irudia), kasu honetan masturbatzen den bikote bat irudikatzen da.

Guri “decoro” gabeak eta gehiegizkoak iruditu ahal zaizkigun arren, Ruiz Montejok eskaintzen digun azalpena honakoa da: Garaiko tenplu eta monasterioetan, guk gaur egun, pentsa dezakegun jarrera hain zorrotza ez zeukaten moralaren aurrean, gutxienez Trentoko Kontzilioa iritsi zen arte. Izan ere, Trentoko Kontzilioa da hain zuzen ere gure ikuspuntu honetan eragin zuena. Gainera, lizunkeria bizio oso orokortutzat hartzen zen<sup>12</sup>.




1. Irudia. Santa Juliana kolegiata.  
Santillana del Mar. (Kantabria)  
XII.mendea.

---

<sup>12</sup> RUIZ MONTEJO, I., “La temática obscena en la iconografía del románico rural”, *Goya*, 147zk (1978), 139 orr.

#### 4. LIZUNKERIAREN BEKATU EDO BIZIOA

Aipatu dugun moduan, lizunkeriaren bizioa gainerako bekatu kapitalak baino askoz gehiago irudikatu zen eskultura arloan. Zekenkeriaren irudikapenak ere besteak baino ugariagoak izan ziren, baina ez ziren haragiaren bekatuarenak bezain anitzak izan hala ere. Hau azaltzeko, Eukene Martinez de Lagos, Euskal Herriko Unibertsitate publikoko irakasleak, Erdi Aroan gizarteak bizi zuen sekularizaziora jotzen du<sup>13</sup>. Monasterio ugarietan inposatutako moralitate zorrotza eta bizitza izpiritualak, garatzen ziren hiri eta burgoekin kontraste handia suposatu zuen, monasterioko monjeek arimaren korrupzioaren zentro bezala ikusten baitzituzten<sup>14</sup>.



2. Irudia. San Salvador elizako kapitelen detailea. Cifuentes. (Guadalajara). XIII.mendea.

Aurretik azaldu dugun moduan, oso baliabide erabilgarria ziren bekatuen irudikapenak fidelak ekiditu behar zituzten bizioak eta hauen ondoriozko zigorrak ikusteko eta ikasteko. XI eta XII.mendeetan bereziki irudikapen hauek eta lizunkeriari dagozkienak bereziki asko ugaritu ziren eta ikonografia ezberdin asko bildu zituzten: besarkatzen diren

bikoteak, erlazio sexual esplizituak, emakume zein gizonak haien genitalak erakusten (askotan handituak), eszena homosexualak, ...<sup>15</sup> Erlazio sexualen irudikapenen adibide argia da Cifuentes herriko (Guadalajara) San Salvador elizako kapitelen erliebea (2. irudia). Bertan, bikote bat agertzen da, bata bestearen gainean jarrera sexual nabariarekin. Gainera, begi sakonekin agertzen zaizkigu bekatariak, eta bekatuaren zigorra fidelei erakusteko, *leviatanaren* irudia agertzen da, lizunak irenstera doanean<sup>16</sup>.

<sup>13</sup> MARTINEZ DE LAGOS, E., *Op.cit.*, 139 orr.

<sup>14</sup> Horrela azaltzen du Winchesterreko monje batek XII.mendean Londreseko hiriaz hitzegiterakoan “*Esta ciudad en ningún modo me gusta, infinitos son los parásitos. Cómicos, bufones, jovenzuelos afeminados, moros, aduladores...*”ROSSIAUD, J., *et alii: El ciudadano medieval*, Madril, Alianza, 1990, 151 orr.

<sup>15</sup> RUIZ MONTEJO, I., *Op.cit.*, 136-146 orr.

<sup>16</sup> *Leviatan*: Itun Zaharrean eta baita antzinatoko mitologian itsasoetako pizti bezala deskribatzen da. Hala ere, Erdi Aroan bereziki infernuetako munstro bezala agertuko zaigu.

Aditu batzuek kontsideratu duten bezala, badirudi kontraesan nabari bat dagoela bizioen arbuizatzearen eta aldi berean irudikatzearen bitartean. Lizunkeria bezalako bizio bat, horri buruz pentsatzea ere bekatutzat hartzen dena, hain modu ikusgarrian behin eta berriz, hainbeste tenpluetan irudikatzeak arrotza egiten zaigu. Erdi Aroan, sexuaz aparte, muxua eta desio sexuala ere bekatuak ziren eta penitentzietan zigortuak ziren<sup>17</sup>. Zure emaztea ez zen emakume bat desiratzeak adibidez 40 eguneko penitentzia suposatzen zuen<sup>18</sup>. Auzi honen inguruan teoria desberdinak daude, nahiz eta hauetako gehienek elizaren helburu hezitzailean bat egiten duten arren. Beraz, helburu moralizatzailetik ezin dira banatu irudikapen hauek, bekatuaren ekintza modu argian erakutsi nahi zaio fidelari zer egin behar ez duen jakiteko inolako zalantzarik eduki gabe. Hezteko modu zuzen honek bat egiten du Erdi Aroko pentsamoldearekin, mezua helaraztea zen garrantzizkoena<sup>19</sup>.

Ezin da ukatu jatorrizko bekatu eta lizunkeriaren bekatuaren artean garatu zen erlazioa. Horrela aipatzen baita Bibliako *Hasiera* liburuan:

“*Orduan, begiak ireki zituzten eta biluzik zeudelaz konturatu ziren*” (Hs, 3.7).

Nahiz eta jatorrizko bekatua berez harrokeriarekin eta Jainkoaren aurreko desafioarekin lotuta egon, Erdi Aroan bekatu sexual bat balitz bezala ikusi zuten<sup>20</sup>. Izan ere, lizunkeriaren bekatua modu horretan izendatua izan aurretik, fornikazioa zen bizio honetarako erabilitako izena. Berez, bizio hau ezkontzatik kanpoko ekintza sexualei atxikiko zaio, baina denborarekin izen honekin definituko dira sexualitateari lotutako ekintza guztiak, prokreatzioaren helburuarekin gauzatzen ez diren guztiak. Izan ere, gorputzarekin erlazio zuzena edukiko du bekatu honek, giza zentzumen guztiak hartzen baitutelako parte bekatuan: ikusmena, dastamena, ... baina batez ere ukimena<sup>21</sup>.

Akinoko Santo Tomas-en idatzi batzuetan lizunkeria beste bizioak baino arriskutsuagoa dela aldarrikatzen da, giza arrazoia (gure fakultate garrantzitsuak)

---

<sup>17</sup> BORNAY, E., *Las hijas de Lilith*, Madril, Ensayos Arte Cátedra, 5.edizioa, 2004, 33 orr.

<sup>18</sup> *Ibidem*, 34 orr. Ikusi ere, DE MARCHI, L., *Sexo y civilización*, Buenos Aires, Ediciones Helios, 1961, 70 orr.

<sup>19</sup> RUIZ MONTEJO, I., *Op.cit.*, 136-146 orr.

<sup>20</sup> LE GOFF, J./TRUONG, N., *Una historia del cuerpo en la Edad Media*, Bartzelona, Paidós, 2005, 12-13 orr.

<sup>21</sup> MARTINEZ DE LAGOS, E., *Op.cit.*, 142 orr.

deuseztatzen duelako, eta gure instintuak kontrolatzea arrazoirik gabe ezinezkoa delako<sup>22</sup>.

Gorputza beraren inguruan oso kontzeptu txarra zutenez, Gregorio Magno Aita Santuak “arimaren jantzi higuigarri” moduan definitu zuen. Izan ere, Erdi Aroan gorputz bekataria eta arima garbi eta puruaren arteko tentsioa, ideia oso garrantzitsua izan zen<sup>23</sup>. Ideia hau hala ere, ez dator kristautasunetik, III.mendeko Platonek jada, gorputza arimaren kartzela moduan deskribatzen du, eta gorputzaren beharrei (bizio eta bekatuak barne) uko eginez lortuko litzateke arimaren purifikazio eta askapena<sup>24</sup>. San Agustinen ideiak ere, gorputzaren inguruko mespretxu honen aldekoak ziren. Geroago, Sevillako San Isidorok ere gorputzaren izena korrupzioarekin lotzen du bere lanik famatuenean<sup>25</sup>.

Oso argia da, zeinek eduki zuen bekatu honen pisua, batez ere jatorrizko bekatuarekin lotzen delako. Emakumeak izango du giza espeziearen alde lizunena, gizonak emakumearen tentazioa jasaten duen bitartean.

Azken urteetan zorionez, emakumearen papera adierazpen artistikoan oso aztertua izan da, eta horrekin batera Erdi Aroan edukitako lekuak ere protagonismoa eduki du. Batez ere hain negatiboa izanda, merezi du honen inguruko hausnarketa bat egitea.

Gizonezkoaren bizio “berezkoak” zikoizkeria eta harrokeriarenak badira, emakumezkoarena lizunkeria izango da<sup>26</sup>. Hala ere, Iberiar Penintsulako hainbat adibide ikusiko ditugu aurrerago, zeinetan emakumearen irudia baino musulmanen irudi lizuna aurkezten den. Dena den, orokorrean emakumezkoa da bekatu honen irudia Erdi Aroko garaiko mendebaldean.

Irudi honen bultzatzaileak Elizako hainbat Guraso izango dira (Ambrosio, Jeronimo edo Juan Crisostomo). Gizon hauek IV eta V. mendeen artean testu biblikoen hainbat interpretazio egingo dituzte. Bibliako *Hasieraren* liburuaren inguruan bi bertasio daudela dirudi.

---

<sup>22</sup> *Ibidem*, 146 orr.

<sup>23</sup> LE GOFF, J./TRUONG, N., *Op.cit.*, 12 orr.

<sup>24</sup> BORNAY, E., *Op.cit.*, 32 orr.

<sup>25</sup> <<*Corpus dictum, eo quod corruptum perii*>> Etimologiak. (XI) 1, 14.

<sup>26</sup> BORNAY, E., *Op.cit.*, 35-36 orr.

Lehenengo honetaz ahaztu omen ziren:

*“Jainkoak, beraz, bere antzeko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudira egin zuen; ar eta eme egin zituen. Eta bedeinkatu egin zituen, esanez: «Sor itzazue umeak eta ugaldu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean narraska dabiltzan piztia guztiak»”.*(Hs 1, 27-28).

Eta bigarren honekin geratu ziren:

*“Orduan Jainko Jaunak lur-hautsetatik moldatu zuen gizona(...) Orduan Jainko Jaunak (...) saihets hezur bat atera zion (...) eta gizonari atera zion saihets hezurretik Jainko Jaunak emakumea moldatu zuen eta gizonari aurkeztu zion”.* (Hs, 2, 7-22).

Bigarren bertsio honetatik jaio zen gaur egun oraindik daukagun desberdintasuna, emakumea beti gizonaren azpitik egongo da, eta haragira lotuta egongo da, gizonaren gorputzetik, haragitik, jaio baitzen. Hau izan zen jatorrizko bekatuaren zergatia: emakumea, izaki ahulagoa izanik, izan zen lehenengoz bekatu zuena, beraz, komenigarria da emakumea gizonaren menpe egotea, honek kontrolpean edukiko baitu bere izaera natural bekataria<sup>27</sup>. Gainera, gizonezkoa ezin zen izan bekatu honen bultzatzaile edo erruduna, Jainkoak (beti ere aurretik aipatutako Elizako Gurasoek egindako interpretazioari jarraituz) bere irudira sortu baitzuen gizonezkoa eta horregatik emakumearen errua azpimarratu du Eliza Katolikoak<sup>28</sup>.

Ama Birjinaren gurtza da lizunkeria eta emakumearen irudiaren arteko lotura noraino heltzen den hoberen adierazten duena. Emakume batek nolabaiteko errespetua lortzeko birjintasuna (emakumeen bertute garrantzitsuena) gorde behar du. Hala ere, amatasunak ere ikuspuntu onargarria zeukan, hori izan behar zelako sexuaren helburu bakarra. Beraz, Ama Birjinak, bere birjintasuna galdu gabe ama izanik, eta Jainkoaren Ama izanik gainera, emakumeek eduki zezaketen maila altuena eduki zuen dudarik gabe, bere atzean martiriak eta emakume santuak zeudelarik.

---

<sup>27</sup> MARTINEZ DE LAGOS E., *Op.cit.*, 144 orr.

<sup>28</sup> BORNAY, E., *Op.cit.* 33 orr.

Ama Birjina, eta sortzez garbiaren irudia bereziki, izango da emakume lizunari kontrajarriko zaiona, tradizio kristauari jarraituz sexua baitzen jatorrizko bekatua transmititzen zuena, eta Ama Birjina Sortzez garbia izanik ez zuen bekatu hori gordetzen. Manuel Guerrak ere jatorrizko bekatura jotzen du emakumea lizunkeriaren irudi izatera nola heldu den azaltzeko<sup>29</sup>.

---

<sup>29</sup> “ *Es así como la mujer se convierte en aliada del diablo y frente a la mujer esbelta, símbolo de la virtud, esta otra, desnuda e insinuada se convierte en símbolo de la tentación y de la maldad, hasta tal punto que incluso algunas veces la serpiente tentadora adquiere cabeza o busto femenino en la escena del pecado original, llegando a convertirse también en el símbolo de la lujuria.*” GUERRA GOMEZ, M., *Simbología románica: El cristianismo y otras religiones en el arte románico*, Madril, Fundación Universitaria Española, 1978, 287. orr.



#### 4.1. LIZUNKERIAREN BEKATUAREN IRUDIKAPENAK

XII.mendean bizioen irudikapenak protagonismo handiagoa hartuko du, bekaturen kontrako kritika eklesiastikoak indartuko direlako XI.mendean Elizak hasitako erreformaren ondorioz. Bekatuaren ideia onnipresente bilakatu zen, ia giza ekintza guztiek bekatu bat edo bestearekin erlazionatzen zirelako maiz (politika, guda, ekonomia, erlazio sozialak...). Erreforma, monasterioetako jarrera erlaxatua eta orden faltari zuzendua zegoen arren, zorroztasun moral hori elizetako irudikapenetara igaro zen fidelen bekatuaren aurreko kontzeptua modu serioago batean azaltzen zitzaielarik<sup>30</sup>. Beraz eta jada aztertu ditugun arrazoiengatik lizunkeriaren inguruko irudikapenak ere oraindik gehiago ugaritu ziren, gainerako bekaturenekin konparatuz. Lizunkeriaren bekatua irudikatzeko bultzada hau azaltzeko, Cervatoseko San Petri elizako adibidea aipatuko dugu. Kantabriako herri honetako eliza lizunkeriaren aurka daukan programa ikonografikoagatik egin da ezaguna, ia elizako eskulturetan ematen den bakarra baita eta ondoren azalduko ditugun ikonografia gehienak bertan erabili zirelako.

Azaldu dugunari jarraituz, lizunkeriaren irudikapen famatu eta aztertuena emakumezko bat dauka protagonistatzat. Sugeek koska egindako emakumearen (La femme aux serpents) irudikapenaz ari gara. Eskultura erromanikoari dagokionez ikonografia honek leku nabaria hartuko du momentu honetatik aurrera.

Nahiz eta aldaera txikiak egon ikonografia honen inguruan, ohikoena emakume biluzia zutik agertzea da. Ez da modu ederrean irudikatzen, oso argal agertzen da, ia hilotz baten moduan, eta bular eroriak azpimarratzen dira. Bi sugek bular hauei koska egiten diete, bekatariaren gorputza inguratzen duten bitartean. Aluari koska eginez beste suge bat agertu daiteke nahiz eta ohikoena apo bat egotea den. Geroago iberiar penintsulako berezitasunak aztertuko ditugu, baina gainerako Europako lurraldeetan ile luze eta soltearekin irudikatu ohi da emakume lizuna, emakume bertutetsuek ilea tapatua eramaten dutenez, irudi horrekin kontrastea sortzeko. Ikonografia honen adibide penintsular bat da Tejadako San Petri elizako harburuetako batean irudikatzen dena (3. Irudia). XII. mendeko eskultura hauek kontserbazio egoera oso onean aurkitzen dira gaur egun eta beraz oso modu errazean identifikatzen dugu azalduko ikonografia, emakume biluziaren irudia ikusterakoan, bi sugek bularretan koska egiten baitiote.

---

<sup>30</sup> CARRASCO MACHADO, M<sup>a</sup>.I./ RABADE OBRADO, M<sup>a</sup>.P, *Op.cit.*, 12 orr.

Aipatu dugun ilearen ezaugarriak ere agertzen dira, eskultoreak ile luze eta soltea daramala azpimarratu du gorantz irudikatuz.

Aditu batzuek gai ikonografiko honen jatorria erromatar garaiko Gea edo Ama Lurraren irudietan ikusi nahi izan dute, irudi honetan ere emakume biluzia baita protagonista eta izaki guztiei titia ematen zion lurra eta emakumearen bizia sortzeko ahalmena azpimarratzen denez. Pedro Luis Huerta-k kristautasunak irudi hau berenganatu eta deformatu zuela dio, lizunkeriaren irudi bilakatu arte, emakumearen konnotazioak guztiz aldatuz. Bizia ematetik, orain animaliek koska egiten diote bere izaera lizunagatik<sup>31</sup>.



3. Irudia. Tejadako San Petriko harbua. harburua. (Burgos) XII.mendea.

Ukaezina da, irudikapen hau lizunkeriaren bekatua egiteagatik Jainkoak ezartzen duen zigorrarena dela. Alde batetik, elizaren sinesmen batekin bat dator:

bekatariak bekatu hori gauzatzeko erabili duen gorputzaren ataletan jasango duela bere zigorra<sup>32</sup>. Hala ere, ez daude lizunkeria sugeekin lotzen duen iturri askorik, sugea jatorrizko bekatuaren tentatzailea izatetik aparte.

Hala ere, aditu batzuek San Pauloren Apokalipsis-era (IV.m) jo dute azalpen baten bila. Testu honetan, kastitatearen aurka bekatu duten emakumeak dragoi eta sugeek zigortzen dituzte<sup>33</sup>. Agustín Gomez Gomezek ere testu honetara jo du sugeen agerpena azaltzeko baina bularren koskaren inguruan idatzirik ez dagoela ezer aipatzen du<sup>34</sup>.

Ines Monteiro Ariasek kristautasuna eta islamaren arteko erlazioa aztertzen du Erdi Aroko artean eta testu musulman teologikoetan irudikapen honi hurbiltzen zaion

<sup>31</sup> HUERTA HUERTA, P. L., “Las visiones infernales: Pecados, pecadores y tormentos” *Poder y seducción de la imagen románica*, Palentzia, Fundación Santa María la Real, 2006, 93-94 orr.

<sup>32</sup> MARTINEZ DE LAGOS, E., *Op.cit.*, 150 orr.

<sup>33</sup> MONTEIRA ARIAS, I., “Las formas de pecado...”, *Op.cit.*, 57 orr.

<sup>34</sup> GOMEZ GOMEZ, A., *El protagonismo de los otros. La imagen de los marginados en el Arte Románico*, Bilbo, Centro de Estudios de Historia del Arte Medieval, 1997, 57 orr.

deskribapena dagoela dio. Izan ere, infernu musulmanean lizunaren zigorra suge eta apoengatik koskatua izatea da<sup>35</sup>.

Beraz, bere esanei jarraituz, posible izango litzateke tradizio kristauak musulmanarengandik eragina aurkitzea ikonografia zehatz honetan. Eukene Martinez de Lagos-ek ikonografia honen inguruko azterketa sakona egin eta gero, deskribapen arabiar hauek eta emakume lizunaren zigor honen irudikapenen arteko antzekotasunak onartzen ditu. Hala ere, testu hauek XII.mendekoak direla azpimarratzen du eta momentu honetarako ikonografia zehatz hau jada Frantzia hegoaldean eta penintsularen iparraldean guztiz ezarrita zegoen. Honi jarraituz berak planteatzen duena honakoa da: posible izango litzatekeela *hadice* (testu teologiko musulman) hauek ugariak ziren irudikapen eskultoriko erromanikoek inspiratuak izana<sup>36</sup>.

Baina lizunaren zigor honen irudikapenez aparte, Erdi Aroan biziotsuaren irudiak sinbolizatzeko beste ikonografia batzuk garatu ziren. Hain interesgarriak ez diren arren, ezin ditugu ahaztu seguruenik lizunkeriaren inguruan dauden irudikapen ugariak: haien organo sexualak erakusten dituzten emakume eta gizonak.

Figura hauek jarrera lizuna erakusten dute eta haien genital izugarri handiak erakusten dituzte. Harburuetan edo baoetako kapiteletan agertu ohi dira eta lizunkeriaren bekatuaren alde grotesko eta desatseginena suposatuko dute<sup>37</sup>.

Emakumeen kasuan, jarrera ezinezkoetan agertzen zaizkigula da deigarriena, haien hankak buruen aldeetara eramanez, horrela, sexua guztiz agerian utziz. Eskultoreek genitalen tamaina exageratzen



4. Irudia. Tejadako San Petriko harburuak. (Guadalajara) XIII.mendea.

<sup>35</sup> MONTEIRA ARIAS, I., “ Las formas de pecado... ”, *Op.cit.*, 57 orr.

<sup>36</sup> MARTINEZ DE LAGOS, E., *Op.cit.*, 152 orr.

<sup>37</sup> MONTEIRA ARIAS, I., “ Las formas de pecado...” *Op.cit.*, 59 orr.

zuten ikuslearentzat antzemangarriagoak izateko helburuarekin. Berdin gertatzen da gizonezkoen organo sexualen irudikapenekin, gehienetan oso desproporzionatuak direnak. Kasu honetan masturbazera doan gizonezkoaren bustoa eta genitalak dira irudikatzen direnak. Horrela agertzen zaizkigu adibidez Tejadako San Petri elizako harburuetan agertzen direnak (4. Irudia). Kasu honetan, emakumeak ez dauka aipatu dugun eta ohikoena den jarrera ezinezkoa. Jantzita agertzen zaigu eta bere arropak altxatuz erakusten dizkigu genitalak, gizonezkoaren irudikapenak egiten duen bezala.

Ez hain ondo kontserbatuak baina ikonografia zabalduagoarekin dauzkagu Cervatoseko San Petri elizako beste harburu batzuk (5.irudia). Oraingoan bai, bikote lizuna biluzik agertzen zaigu eta emakumeak buruaren aldeetan kokatzen ditu hankak. Eskulturak nahiko galduak dauden arren ondo identifikatzen da genitalen presentziaren protagonismoa. Harburu hauek lizunkeriaren kontrako beste irudikapen batzuek inguratuta agertzen dira.



5. Irudia. Cervatoseko San Petriko harburuak. (Kantabria)  
XII.mendea.



6. Irudia. Cervatoseko San Petriko bao baten kapitela. (Kantabria) XII.mendea.

Ikonografia honetan ezin dugu esan emakumeak daramala bekatuaren pisu guztia gizonezkoen eta emakumezkoen irudikapen hauek binaka agertu ohi direlako, bai bata bestearen alboko harburuetan, baita bao berdineko kapitela desberdinetan, Cervatoseko San Petri elizan bi kokapen hauetan aurkitzen dugu ikonografia hau (5. eta 6. irudiak). Biluzia beti dago presente, nahiz eta emakumezkoen kasuan, adibide askotan burua estalita agertu. Estaldura honi buruz, adituek ez dira ados jartzen: batzuek emakume ezkonduen sinbolo den mantua dela defendatuko dute, baina beste batzuen ustetan (batez ere Iberiar Penintsulako adibideetan) emakumea musulmana dela adierazteko baliabidea dela aldarrikatuko dute.

Ziurra dena honakoa da: moralaren hezkuntzari lotuta daudela irudikapen hauek, zer egin behar ez den erakusten baitiote fidelari, eta horregatik modu groteskoan irudikatzen dituzte lizunak. Hala ere, Ruiz Montejok ez du kritika moralik ikusten eskultura hauetan eta irudi satirikoak baino ez direla defendatzen du<sup>38</sup>.

<sup>38</sup> RUIZ MONTEJO, I., *Op.cit.*, 136-146 orr.

Lizunkeriaren bizioa irudikatzeko, beste kasu batzuetan animali fantastikoen agerpena ematen da, antzinarotik bizio honetara lotuak izan direnak. Hauen artean, dudarik gabe erabiliena sirenaren irudia izango da<sup>39</sup>.



7. Irudia. San Esteban protomartiriaren elizako kapitela. (Burgos) XIII.mendea.

Kasu honetan, bi bertsio aurkitzen ditugu sirenari dagozkionak. Lehenengoa hegazti eta emakume arteko hibridoa izango litzateke: hegazti gorputz eta hegoak dituen izakia izango da baina emakumezko bular eta buruarekin (Homeroren Odisea liburutik eratorritako ikonografia). Bigarrena emakume eta arrain arteko hibrido ezagunagoa izango da, emakume gorputza baina arrain isatsa<sup>40</sup>. Bigarren hauek gehienetan bi arrain isats eduki ohi dituzte, San Esteban Protomartiriaren elizan (Burgos) kapitela batean aurkezten dena bezala (7. irudia). Ilea luze eta solte daukan sirena bat aurkezten zaigu eta bere bi isatsak eskuekin hartzen ditu buruaren bi aldeetara.

Ezaugarri honekin, aurretik aztertu ditugun hankak heltzen dituzten emakumeekin formalki oso antzekoak diren irudiak osatzen dira<sup>41</sup>. Bi sirenen irudikapen hauek konnotazio negatiboak edukiko dituzte antzinarotik, tradizioari jarraituz bere kantuarrekin zorutzen baitzituzten gizonak hauek itotzeko helburuarekin. Argia da lizunkeriarekin gordetzen den paralelismoa, emakumeek baitira gizona tentatzen dutena bekatua gauzatzeko. Arrisku fisiko bat suposatzen, arrisku morala suposatuko du orain sirenak, norbanakoaren buruaren kontrola eta kastitatearen bidez menderatu behar delarik.

<sup>39</sup> MARTINEZ DE LAGOS: *Op.cit.*, 140 orr.

<sup>40</sup> CURROS ARES, M<sup>a</sup> A., *El lenguaje de las imágenes románicas*, Madril, Encuentros, 1991, 130 orr.

<sup>41</sup> MONTEIRA ARIAS, I., “Las formas de pecado...” *Op. cit.*, 60orr.

## 4.2. IBERIAR PENINTSULAKO LIZUNKERIAREN IRUDIKAPENAK, ISLAMAREN ERAGINPEAN

Dakigun moduan, Erromanikoak batez ere arkitekturaren eta eskulturaren bateratasuna suposatu zuen Europako lurralde guztietan. Hala ere, ezin da ukatu tokian tokiko egoerek desberdintasun batzuk suposatu zituztela, batez ere ikonografiaren atzean zeuden ideien inguruan.

Beraz, Iberiar Penintsulako eskultura erromanikoa aztertzerakoan, bertako egoera, batez ere politikoa ezagutu eta ulertu beharra dago. Izan ere, gainerako europar lurraldeetan bizi ez zen zerbait gertatzen ari zen penintsulan: inbasio musulmana.

Laburbilduz, konkista 711.urtean hasi zen, Afrika iparraldetik etorritako talde desberdinek (musulman erlijioakoak guztiak), Don Rodrigo Errege bisigodoa garaitu zutenean. Inbasioa edo islamiarren egonaldia zortzi mendez luzatu zen 1492 arte, musulmanek Granadako Errege-Erregina Katolikoei errenditu zieten.

Konkista oso azkarra izan zen, zortzi urtetan Hispania ia osorik hartu zuten, iparraldeko lur eremu batzuk izan ezik. Eremu hauetan erresistentziako erreinu kristauak sortu ziren eta gutxinaka musulmanek hartutako lurak berreskuratuz joan ziren.

Denboraldi horretan Espainia “islamizatu” egin zen eta Al-Andalus izena hartu zuen musulmanen lurralde berriak. Bertan, inbaditzaileen kultura, hizkuntza eta ohitura asko berenganatu ziren, penintsulako garapen historikoan eragin handia edukiz.

Orain aztertuko duguna eragin hauetako alde bat izango da. Ez bakarrik arte adierazpenetan eduki zuen eragina, baizik eta kristautasunak nola erabili zuen bere mesedetan artea adierazpen islamiarrei dagokionez.

Jada aipatu dugun bezala, elizako autoritateek Jainkoaren mezua artearen bidez, ezikasiak ziren fidelei helaraztea lortzen zuten. Iberiar penintsulan, mezu hezitzaile honekin batera, musulmanen inguruko irudi negatibo bat zabaldu zuten herri kristauetan. Hau lortzeko, oso modu inteligentean bekatariak infidelekin parekatzea lortu zuten, modu batera edo bestera bekatuak irudikatzerakoan sinbolo musulmanak eskulturetara erantsiz.

Horrela, emakumeaz aparte, beste bekatari batzuek lekua hartuko dute eskultura erromanikoaren barne, batez ere Iberiar Penintsulako eremu kristauetan, baina baita Europako beste lurralde batzuetan Jerusalemen ere musulmanen aurkako Guda Santua ematen ari zelako. Propaganda antiislamikoak izango da beraz momentu hauetan elizako autoritateek programa ikonografikoetarako pentsatuko dutena.

Ohikoa izan zen beraz, garai honetako eskulturan zein beste bide batzuen bidez (pinturak, miniaturak, idatziak, ...) musulmanen irudi maltzur eta itsusia aurkeztea, baina dudarik gabe protagonismo nagusia edukiko du lizunkeriaren bekatuarekin egindako loturak<sup>42</sup>. Erraza izan zen elizarentzat bizio honen eta erlijio musulmanaren artean erlazioa ezartzea, islamean sexuaren gaineko ikuspuntua askoz positiboagoa baitzen kristautasunak zuenarekin konparatuz, aurrerago aztertuko dugun moduan. Irudi guzti hauek eta hauetatik zabalduko ideia peioratiboak gurutzadak legitimatzeko (eta baita errekonkista Iberiar penintsulan bultzatzeko) baliabidea izan ziren, ukatu ezin den izaera politikoa zeukatenak, erlijioso moralizatzailearekin batera.

Hala ere, ez pentsa musulmanek hartuko dutela orain arte aztertu dugun emakume lizunaren lekua. Emakumea lizunkeriaren bekatuaren irudi izaten jarraituko du, baina orain emakume hori emakume izateaz gain musulmana ere izango da. Emakume lizunen artean lizunena izango da hain zuzen. Arrazismoa eta misoginiaren arteko lotura suposatu zuten irudikapen hauek<sup>43</sup>.

Erromanikoan, balore moralak monjeen esku zeuden. Hauen botoak kastitatea, austeritatea eta obedientziari kontrajartzen ziren bekatuak ziren beraz arbuiatuenak: lizunkeria, zikoizkeria eta harropuzkeria. Lizunkeria beraz, gizakion bekatuen artean baxuenetarikoa zen. Aipatu dugun moduan ere, moral kristaua eta musulmanaren artean kontraste bizia zegoen sexuaren inguruan, eta honetaz baliatu ziren musulmanen irudi negatibo hau bultzatu nahi zutenek.

XI eta XII.mendeetatik aurrera, kleroak kastitatea arautzat hartuko du eta sexuaren tabuak indar gehiago hartuko du. Honekin batera, lizunkeriaren bekatuaren irudiak eta honen ondoriozko zigoren irudikapenak ere ugarituko dira.

---

<sup>42</sup> MONTEIRA ARIAS, I., 'La otra'..., *Op.cit.*, 29 orr.

<sup>43</sup> *Ibidem.* 30 orr.



Erljio Islamiarrak bere aldetik, ez du gorputzaren plazerren inguruan inolako bekatirik ikusten, eta ez du giza naturan gaizkiaren presentziarik ikusten, kristauek jatorrizko bekatuaren ondoriozko zerbait dela uste duten bitartean.

Koranak dioenez, gizakia modu puruan jaiotzen da eta inpurua den guztia kanpotik dator, eta beraz, giza gorputzaren plazerra den sexua modu positiboan ikusten da, Jainkoak gizakiari ugaltzeko eskainitako baliabidea izanik. Bibliari jarraituz, aldiz, gizakiok barnean daramagu jatorrizko bekatua, eta jada aztertu dugun moduan hau sexuarekin erlazionatzen da pentsamolde kristauan.

Izan ere, jatorrizko bekatuaren pasartea Koranean agertzen da ere baina modu ezberdinean. Musulmanek emakumea zein gizona Jainkotik sortu zirela onartzen dute, eta ez emakumea gizonetik jaio zela. Gainera, Eba ez da tentatzaile moduan agertzen, ez du bekatuaren pisua berak bakarrik eramango. Koranean biek aldi berean bekatzen dute, deabruaren bidez tentatuak. Hala ere, ezin da ahaztu, erlijio musulmana ere patriarkala dela eta emakumeak gizonen menpe daudela kontsideratzen dela kristautasunarekin gertatzen den moduan. Hala ere, kristautasunean ideia hauek jatorrizko bekatuaren pasarteaz baliatuz justifikatzen diren bitartean, erlijio islamiarrean ez da hala gertatzen<sup>44</sup>.

Literatura kristauan berehala agertu ziren Mahoma profetari bekatu hau esleitzen zioten idatzirik. Honen adibide dira Mahoma profetaren inguruan VII.mendeko ekialdeko monjeek egindako biografia. Hauetan, lizun poligamo moduan aurkezten da profeta, eta herrialde musulman guztiak bekatu honen presentziagatik ezagunak direla aipatzen da<sup>45</sup>. Idei hau eskolagabetua zen herri kristauan zabaldu zen eta Profeta bekatariaren ideia bere jarraitzaile guztiei ere atxiki zitzaien.

---

<sup>44</sup> CARRASCO MACHADO, M<sup>a</sup>.I./ RABADE OBRADO, M<sup>a</sup>.P., *Op.cit.*, 220 orr.

<sup>45</sup> MONTEIRA ARIAS, I., "La otra"..., *Op.cit.* 31orr.



8. Irudia Cervatoseko San Petri elizako kapitel baten detailea. (Kantabria). XII.mendea.

Eskultore erromaniko kristauek, oso modu errazean lortu zuten orain arteko emakume lizuna, islamaren jarraitzaile bezala irudikatzea. Horretarako janzkerara jo zuten. Kontutan eduki behar da, lizunkeriarekin lotzen diren irudikapen gehienak biluztasunarekin lotzen direla, aurretik ikonografiak aztertzerakoan ikusi dugun

moduan. Kasu honetan, beraz, hankak buruaren aldeetatik hartzen dituen emakumearen ikonografiaren barne, adibide askotan burua estalita daramala ikusten dugu. Zapi hau buruari buelta ematen dio, lepoan gurutzatua eta kokotsa ere inguratuz.

Oso ondo ikusten da ezaugarri berezi hau jada aipatu dugun Cervatoseko San Petri elizako bao bateko kapitel batean (8. irudia). Kapitel honetan bere genitalak erakusten dituen emakume bat aurkezten zaigu baina burua estalita daukala oso nabaria da. Gure iritsiz, zapi hau *hiyab* edo belo islamiarrari erreferentzia argia da, nahiz eta beste hainbat adituk emakume ezkonduen sinbolotzat hartu duten.

Ines Monteiro Ariasek emakume musulmanaren inguruan idatzitako lanean, irudikapen hauek ezkonduetako emakume kristauarenak ezin direla izan defendatzen du. Emakume ezkonduen mantu hau, purutasuna eta bertutea adierazten duelako ere, eta gainerako emakume lizunen adierazpenetan ile luze eta solteko emakumeak agertzen dira, ilea erakustek probokazioaren irudi bilakatzera heldu baitzen. Emakume lizunak, nahiz eta ezkondua egon bere bekatuagatik mantua galduko luke, emakume bekatari batek ezingo zuelako Ama Birjinen eta emakume Santuen jantzi berdina erabili<sup>46</sup>.

Ikonografia honen beste adibide bat Jaramillo de la Fuente herriko Igokundearen elizako beste harburu batean aurkitzen da (9. Irudia).

<sup>46</sup> *Ibidem*, 34-36 orr.

Zapi hau islamaren hasieratik da emakumezkoen janzkeraren atal garrantzitsua, eta garai askotan, Iberiar Penintsularen konkista mendeetan adibidez, emakume musulmanak kristauengandik bereizteko erabiliko da.

Azkenik, “La femme aux serpents”-aren ikonografiara jotzen badugu, beti agertuko zaigu emakume biluzia, ile solte eta luzeekin, inoiz ez emakume ezkonduen mantuarekin. Honek frogatzen du, Ines Monteiro Arias-en esanetan, belodun emakume baten irudikapena, lizunkiaren bekatuarekin erlazionatzen bada, emakume musulman bat izan behar duela, ez baitauka zentzurik emakume ezkondu kristau bertutetsu batek lizunkiaren bekatuarekin erlazionatzeko mantua eramateak.

Berdin gertatzen da jada aztertu dugun lizunkiaren aurkako beste ikonografia batean: bi isatseko sirena hain zuzen. Hainbat kasutan, turbante bat daramatzala dirudi, berriro ere musulman (kasu honetan gizonezkoen) janzkeraren ezaugarri ukalezina dena. Adibide hau aurkitzen dugu Segoviako herri bateko San Joan Bataiatzailearen elizan (10.irudia). Kasu honetan, isats bakarreko sirenak dira irudikatzen direnak baina ondo ikusten da figurak bizardun eta turbantedunak direla.

Nahiz eta eskulturaren arlotik at egon, aipagarria da, Mahomaren ezagutzen dugun irudikapen kristau zaharrenaren berezitasuna. Irudi hau, Arsenaleko Eskuizkribuan agertzen zaigu, XII.mende erdialdean idatzitakoa. Mahoma irudikatzeke, giza aurpegia eta arrain isatsaren konbinaketa erabili zen, sirenarekin



9. Irudia. Igokundearen Eliza. Jaramillo de la Fuente. (Burgos) XII.mendea.



10.Irudia. San Joan Bataiatzailearen elizako kapitela. Cerezo de Arriba. (Segobia). XII.mendea.

lotzen den lizunkeria berriro ere profeta musulmanarekin erlazionatzeko eta beraz, bere jarraitzaileei ere lotzeko.<sup>47</sup>

Guzti hau aztertuta, argi dago emakume musulmanaren irudia Iberiar Penintsulako eskulturaren barne bi idei edo ezaugarri garrantzitsu ezagutzeko baliagarria dela. Alde batetik, islamak kristauen artean jasandako difamazioaren prozesua, baita eskulturak erromanikoan balore eta ideiak zabaltzeko suposatu zuen baliabide bikaina izan zela.

---

<sup>47</sup> *Ibidem*, 37 orr.

## 5. ONDORIOAK

Ondo dakigun moduan, artea gizartearen islada bat da. Elizak islada hori kontrolatu zuen, modu eraginkor batean gizartea bere asmoekin bat moldatzeko. Bekatuek Erdi Aroko pentsamendu kristauan edukitako garrantzia arte adierazpenetan islatu zen. Lizunkiari dagokionez, nabariagoa izan zen elizak irudikapen hauetaz egin zuen erabilera.

Pentsamolde kristauak ere Erdi Arotik bizi dugun Aro Garaikiderako bidean garapen bat eduki du, aztertu ditugun adibideak garai honetan baino ez baitziren eman, eta gaur egungo ikuspuntutik zaila baita ulertzea moralitate kristaua eta irudikapen hauek gordetzen duten erlazioa. Hala ere, hori azaltzen ahalegindu gara lan honetan adierazpen artistikoen atzetiko ideiak aztertuz.

Lizunkiaren bekatuaren irudikapenak oso ugariak izan ziren, Iberiar Penintsulan eta Europako gainerako lurraldeetan. Honek, ikonografia oso ezberdinen garapena eragin zuen eta ikonografia hauek behin eta berriro errepikatu ziren eliza kristauetan. Erdi Aroan arte adierazpenen ezaugarri formalek ez zeukaten inolako garrantzirik eta horregatik ez ditugu formalki trebeak diren eskulturak aurkitu. Bestalde, mezua helarazteko helburua zen garrantzizkoena, eta eskulturak adierazgarriak direla ezin da ukatu, lizunkeria eta sexuari egiten baitiote erreferentzia dudarik gabe. Mezu hauek eliza barneko mezeekin batera, fidelek Jainkoaren hitza ondo barneratzea lortzen zuten.

Ikusi dugun moduan, kontuan eduki behar da irudiak Erdi Aroan adierazpen artistikoetan baino ez zirela ematen, eta lizunkeria adierazteko gune ezin hobeak ziren elizetako atari, harburu eta kapitelak. Gure gaur egungo ikuspuntua, XVI.mendeko Trentoko kontzilioak eta horrek bultzatutako moralaren zorrozketak baldintzatu du. Gaur egun gustu txarreko irudikapenak baino ez ditugun ikusten bitartean, Erdi Aroko elizak bertutearen moralitatea modu errazean inposatzeko aukera ikusi zuen.

Pentsamolde kristauan aldaketak egon baziren ere, hauek mezuak helarazteko moduan baino ez dira aldatu, aztertu ditugun ideiei guzti hauek oraindik gure pentsamoldean jarraitzen baitute gure sustrai judeo-kristauen eraginez. Oso eraginkorrak izan ziren lanean zehar aztertutako baliabideak, gaur egun oraindik bere aztarnak oso antzemangarriak direlako.

Iberiar Penintsulan suertatutako berezitasunak (politiko eta erlijiosoak) artean norainoko eraginak eduki zituzten azaldu dugu ere, islama eta kristautasunaren arteko gudak, elizen kanpoaldeko eskultura baldintzatu zuen izan ere.

Erdi Aroan lizunkeriarri lotzen zitzaizkion ideiei gehienak, tabu izaten jarraitzen dute gure gizarteetan, sexua eta plazer sexuala hainbat arlotan ez dira modu positibo eta natural batean onartzen, nahiz eta esparru honetan asko aurreratu dugun. Gizarteak gero eta kontzientzia gehiago duen arren, emakumezkoak oraindik darama lizuna izatearen pisua, eta bere birjintasuna bertute baten moduan ikusten da. Azkenik, elizak inbasio garaian musulmanen aurka garatutako propaganda belaunaldi askoren ostean, hainbat kasutan ez du indarririk galdu.

Honekin azaldu nahi duguna, Erdi Aroko arte adierazpenen boterearen indarra da, artea zelako garai hartan horrelako eragina sortu ahal zuen baliabide bakarra. Baliabide hau erlijio baten menpe egotea, erlijio horrek bere ideiak inposatzea suposatu zuen.

Beraz, nahiz eta orain dela hamar mendeko adibideen inguruan aritu, gaur eguneko egoerari eta pentsamoldeari oso lotuta dagoen gai bat jorratu dugu, zeinetan dudarik gabe, eliza katolikoak eduki zuen botere osoa. Dena den, oso posiblea da Erdi Aroan arteak inoiz edukitako boterea eduki izana.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- BORNAY, E., *Las hijas de Lilith*, Madril, Ensayos Arte Cátedra, 5.edizioa, 2004.
- CARRASCO MACHADO, A. I.; RÁBADE OBRADÓ, M<sup>a</sup> P, (koord.) *Pecar en la Edad Media*, Madril, Sílex, 2008.
- CURROS ARES, M<sup>a</sup> A., *El lenguaje de las imágenes románicas*, Madril, Encuentros,1991.
- DE MARCHI, L., *Sexo y civilización*, Buenos Aires, Ediciones Helios, 1961.
- GOMEZ GOMEZ, A., *El protagonismo de los otros. La imagen de los marginados en el Arte Románico*, Bilbo, Centro de Estudios de Historia del Arte Medieval, 1997.
- GUERRA GOMEZ, M., *Simbología románica: El cristianismo y otras religiones en el arte románico*, Madril, Fundación Universitaria Española, 1978.
- HUERTA HUERTA, P. L., “Las visiones infernales: Pecados, pecadores y tormentos”, *Poder y seducción de la imagen románica*, Palentzia, Fundación Santa Maria la Real, 2006.
- LE GOFF, J.;TRUONG, N., *Una historia del cuerpo en la Edad Media*. Bartzelona, Paidós, 2005.
- MARTÍNEZ DE LAGOS, E., “La femme aux serpents’. Evolución iconográfica de la lujuria en el Occidente europeo medieval”. *Clio&Crimen*. 7 zk (2010), 138-158 orr.
- MONTEIRA ARIAS, I., “Las formas del pecado en la escultura románica castellana. Una interpretación contextualizada en relación con el islam”, *Codex Aquilarensis*, 21zk (2005), 50-87 orr.
- MONTEIRA ARIAS, I., “La otra’ en el imaginario cristiano plenomedieval: la mujer musulmana asociada a la lujuria en el arte románico”. *Zeitschrift für geschlechterforschung und visuelle kultur*, 54 zk (2013), 28-39 orr.
- ROSSIAUD, J. *et alii*, *El ciudadano medieval*, Madril, Alianza, 1990.

- RUIZ MALDONADO, M., “La contraposición”Superbia-Humilitas”.El sepulcro de Doña Sancha y otras obras” *Goya*, 146zk, (1978), 75-81 orr.
- RUIZ MONTEJO, I., “La temática obscena en la iconografía del románico rural” *Goya*, 147zk (1978), 136-146 orr.
- SEBASTIAN, S., *Mensaje simbólico del Arte Medieval*, Madril, ETOR, 1994.
- SEBASTIAN, S., *Iconografía Medieval*, Donostia, ETOR, 1998.